BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

# “Merioaren Ibilbidea” guztientzat zabalik

- **Gerediagako Batzarretxea izango da Gerediaga Elkarteak Bizkaiko Batzar Nagusiakaz batera 2009. urtean atondutako kultur ibilbide horrek dituan zortzi interesguneetariko bat.**
- **Guztientzat zabalik dagozan bisitaldi gidatuak urtarrilaren 19an hasiko dira**
- **Ibilbidean zehar estrategikoki banandutako azalpen zutabeak dagoz, ibilbidea euren kontura egin gura dabenen lagungarri.**




*Gerediaga, 2013ko urtarrilaren 8a*

Adina gora-behera, edonork emon leike izena “Merioaren ibilbidea” egiteko. Orain arte, eskualdeko eskola-umeentzako prestaturik egoan Ibilbide hori, Durangaldearen jatorria, historia eta erakundeak hobeto ezagutu eiezan. Urtarrilaren 19an hasita, guztientzat zabalik dago Gerediaga Elkarteak bultzatutako ekimen hori. Autobusez bisitaldi gidatua egingo da zortzi interesgune ardatz hartuta, besteak beste Bizkaiko Batzar Nagusiena dan Gerediagako Batzarretxea (Abadiño). Ibilbidea euren kabuz egin gura dabenei laguntzeko, Ibilbidean zehar estrategikoki banandutako azalpen zutabeak dagoz.

Ibilbide turistiko hori Goiurian (Iurretan) hasten da eta Momoitioko San Juanetik (Garai), Garaiko eleizatetik, Gerediagako Foru Zelaitik (Abadiño) eta San Agustin Etxebarriatik (Elorrio) igaroten da, Elorrioko uribilduan amaitzeko. Bisitaldi gidatu horren aukerakotzat, ibilbidean zeharko zortzi gune nagusietan, “totem” antzeko zutabe batzuk jarri dira ibilbide osoari eta dagozan leku zehatzari buruzko informazinoa eskainiz, bai fisikoki zutabean integratutako argazki eta testuen bidez, baita mugikorraren bitartez be, ikurretan jarritako QR kodeen bidez, Gerediagako www.gerediaga.com webgunera zuzenduta.

“Merioaren ibilbidea” 2009. urtean egiten hasi zan aisialdi-eskaintza da, eskualdeko gazteei zuzenduta. Horri esker, ehundaka ikaslek izan dabe aukerea Durangaldearen historiaz, erakunde-antolaketaz eta zehaztasunez gehiago jakiteko: lehen antolaketaren ondorioz sortutako auzo edo kofradiak, eleizateak eta eleizateen bilketearen bitartez sortutako Merinaldea, Nafarroako erresumeagaz izandako hartu-emonak edo uribilduen presentzia ahaztu barik, orain 800 urte dirala Durangaldea Bizkairatu zan arte.

Ibilbidea egiteko, bada, aurretiaz deitu behar da 94 681 80 66 telefonora edo, bestela, www.gerediaga.com webgunera jo izena emoteko. Hori egin ostean, edonork eukiko dau aukerea goizean zehar autobusez bisitaldi gidatua egiteko Durangoko Merinaldea izan

zanaren lekurik aitagarrienetatik zehar, hango urigune eta baserrialdeak ezagutu eta antolaketa politikoaren barri izateko. Urtarrilaren 19ko bisitaldi gidatua euskeraz izango da, eta 20koa erderaz.

Bisitaldiaren erdiguneetariko bat Gerediagako Batzarretxea izango da, eskualde horrentzat ikur berezia da-ta. Bizkaiko Batzar Nagusiek konpondu eta berreskuratu egin eben Gerediagako ermitea, Bizkaiko gaur eguneko ordezkari hautatuek bertan atzera be batzartu daitezan, aspaldiko sasoietan Durangoko Merinaldeko ordezkariek egiten eben moduan.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

# La “Ruta del Merino” se abre a todos los públicos

- **La Casa de Juntas de Gerediaga será uno de los ocho puntos de interés de este itinerario cultural que ideó la sociedad Gerediaga Elkartea en el año 2009 con la colaboración de las Juntas Generales de Bizkaia.**
- **Las visitas guiadas para todos los públicos comenzarán el 19 de enero.**
- **Como alternativa, un conjunto de postes distribuidos estratégicamente por la ruta guiarán e informarán a los turistas que vayan por libre.**




*Gerediaga, a 8 de enero de 2013.*

Personas de todas las edades podrán apuntarse ya a la “Ruta del Merino”, un itinerario pensado hasta ahora para que los escolares de la comarca tuvieran la oportunidad de conocer el origen, la historia y las instituciones del Duranguesado. La sociedad responsable de esta iniciativa, Gerediaga Elkartea, abrirá a partir del 19 de enero la ruta a todos los públicos. El recorrido guiado en autobús incluye ocho puntos de interés, entre los que se encuentra la Casa de Juntas de Gerediaga (Abadiño), propiedad de las Juntas Generales de Bizkaia. Unos postes informativos guiarán a los que quieran hacer el recorrido por libre.

La ruta turística parte del barrio de Goiuria (Iurreta), y tras pasar por San Juan de Momoitio (Garai), la anteiglesia de Garai, la Campa Foral de Gerediaga (Abadiño), la Casa-Auditorio de Astola (Abadiño), la Casa-Torre de Muntsaratz (Abadiño) y San Agustin Etxebarria (Elorrio), el recorrido concluye en el casco histórico de la villa de Elorrio. Como alternativa a estas visitas guiadas y complemento al proyecto, en estas ocho paradas de la excursión se han instalado unos “totems” donde se ofrece información de toda la ruta y de cada lugar, bien a través de los textos y fotografías integrados en los indicadores, o por medio de códigos QR, que permiten, a través del móvil, conectar con la información de la web incluida en www.gerediaga.com.

La “Ruta del Merino” es una oferta de ocio que se inició en el año 2009 para jóvenes de la comarca. Gracias a ella, cientos de estudiantes se han podido acercar a la historia del Duranguesado y a sus formas de organización y peculiaridades: los barrios o cofradías como primeras formas de agrupación, las anteiglesias y la unión de éstas hasta llegar a merindad, sin olvidar la relación con el Reino de Navarra o la presencia de las villas y su integración en Bizkaia hace precisamente 800 años.

A lo largo de toda una mañana, y previa reserva en la web www.gerediaga.com o en el

teléfono 94 681 80 66, cualquier persona que lo desee tendrá ahora la oportunidad de realizar una excursión guiada en autobús por los lugares más significativos de lo que fue la Merindad de Durango y conocer los diversos tipos de asentamientos rurales y urbanos, y su forma de organización política. Las primeras visitas guiadas comenzarán los días 19 y 20 de enero, en castellano y euskera, respectivamente.

Uno de los puntos cardinales de la visita será la parada en la Casa de Juntas de Gerediaga, un lugar especial de amplia carga simbólica para la comarca que sólo puede ser vistta a través de estas citas previas  en grupo. Las obras de restauración que llevaron a cabo las Juntas Generales de Bizkaia recuperaron del olvido lo que fue la ermita como escenario para volver a reunir a los actuales representantes de Bizkaia, como ocurría en el pasado con los “merinos” del Duranguesado.